

Bihar jokatuko da Oñatin Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketaren 40. ekitaldia

Hamaika txakur eta artzain lehiatuko dira Santa Luziako maldan txapelaren bila

I. Petxarroman / Donostia

Bihar jokatuko da Oñatiko Santa Luziako maldan Nazioarteko 40. Artzain Txakur Txapelketa. Iaz bezala, *border collie* arrazako txakurren inguruan izandako eztabaidak eragina izan du ekitaldian, baina antolatzaileek «maila handiko» txapelketa arrakasta handiz igaroko dela uste dute. Lehiaketa goizeko hamaiketatik aurrera jokatuko da.

IAZ, euskal artzain txakur arraza babesteko xedearekin zenbaitengan haserre bizia piztu zuen erabakia hartu zuen Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketen Antolatzaileen Elkarteak: bertako *border collie* arrazako txakurrik ez onartzea, lehiaketan lehenago aritua ez bazen behinik behin.

Jose Maria Bengoa antolatzaileak EGUNKARIARI azaldu dionez, «ikusten genuen *border collie* arrazako txakurrak asko indartzen ari zirela Euskal Herrian ere, eta gure arraza babesteko horri galga jarri behar geniola, bestela oso zail ikusten baikenuen gureak aurrera ateratzea».

Lehendik arituak ez ziren *border collie*-ak onartu ez zituzten lehen txapelketa ofiziala Gipuzkoakoa izan zen, eta orduan jadanik arazoak sortu ziren zenbait artzainekin. Iaz, esaterako, Jose Antonio Arrillagak, 1997ko irabazleak, ez zuen parte hartu Oñatin, horretarako esku-bidea bazuen arren, parte hartu ezin zutenekiko elkar-tasunean.



Enrike Mendiguren, *Argi* txakurrarekin, iaz irabazi ondoren.

«Maila handia, urtero bezala»

Jose Maria Bengoak dioenez, aurten txapelketan ez dago ezer berezirik beste urteekin konparatuta: «Urtero bezala maila handia dago, hori da beti txapelketa honetako berezitasuna», dio.

Iaz bezala, aurten ere lehen banatuta egin ohi ziren bi proba batera egingo dira, hau da banderatoxena eta hesiena. Antolatzaileen ustez, iaz lehen aldiz erabili zen berrikuntza horrek «emaitza onak» izan zituen, eta, horregatik eustearen alde agertu dira.

JOSE MARIA BENGOA (ANTOLATZAILEA)

Txapelketa

■ ■ ■ «Urtero bezala, maila handia dago, eta hori da beti Oñatiko txapelketa honetan izaten den berezitasuna»

Bihar 11 txakur eta artzain arituko dira txapelaren bila, gehienak Euskal Herrikoak. Bakarrik hiru artzain dira kanpotarrak: bi kataluniarrak eta bat frantziarra.

1955ean egin zen Oñatiko Nazioarteko Txapelketaren lehen proba, eta orduztik 1989ra arte beti txakur Euskal Herriko txakurrek irabazi zuten. Kanpoko artzainek lau aldiz bakarrik irabazi dute Oñatiko txapela historia osoan: 1989an, 1993an, 1994an eta 1996an.

Iaz Nestor Basterretxea eskultoreak egindako Euskal Artzainaren monumentua

inauguratu zuten Oñatiko txapelketaren bezperan. Gaur arratsaldean, udal aretoan monumentua egiten lagun zuten pertsona eta elkarte guztiei monumetuaren irudia banatuko diete, oroimen bat izan dezaten.

Iazko Oñatiko txapelketan Enrike Mendiguren Orozko-ko artzaina eta *Argi* euskal artzain txakurra geratu ziren irabazle. Haien atzetik, bi *border collie* arrazako txakur geratu ziren: *Txika*, Ioldiko Michel Atxeritogarairekin, eta *Tremenda*, Hilario Novillo artzain katalanarekin.

Txapelketako hamaika parte hartzaileak

• Honakoak dira bihar Oñatiko 40. Nazioarteko Artzain Txakur txapelketan lehiatuko diren txakur eta artzainak:

1. *Argi*, Enrike Mendiguren (Orozko). Iazko txapelduna.
2. *Artzai*, Jesus Mari Plazaola (Arrasate). Euskadiko ordezkaria.
3. *Xarpa*, Jose Urien (Abadiño). Bizkaiko eta Euskadiko txapelduna.
4. *Artzai*, Andres Atxa (Eibar). Gipuzkoako txapelduna.
5. *Lagun*, Jose Maria Agirre (Zollo). Arabako txapelduna.
6. *Xarpa*, Josetxo Billabona (Leitza). Nafarroako txapelduna.
7. *Argi*, Jean Michel Bidart (Banka). Ipar Euskal Herriko txapeldunordea.
8. *Argi*, Felix Saint Pier (Itxasu). Ipar Euskal Herriko txapelduna.
9. *Tremenda*, Hilario Novillo (Sampedros-Katalunia). Kataluniako txapelduna.
10. *Flaxc*, Jose Maria Box (Riumors-Katalunia). Kataluniako txapeldunordea.
11. *Jamee*, Thierry Spriet (Bellac-Frantzia). Frantziako txapeldunordea.